

DIGITALIZATZAILE ULTRASONIKOA

Orain arte ezagutzen diren taula digitalizatzaile gehienek arazo amankomun bat dute: taularen tamaina. Digimass sistemarekin edozein mahai edo taula erabil daiteke digitalizatzailearen euskarri automatiko bezala.

Ultrasoinuen bidez funtzionatzen duenez, ez du tamaina-mugarik eta DIN A4tik DIN A0ra bitarteko tamainako planoak eta handiagoak ere digitaliza ditzake. Digitalizatzaile honek teklatuarekin batera ere egin dezake lan eta datua sartzea onartzen du, lan-formatua aldatu gabe. Teklatuak karaktereak, zenbakiak eta funtzio-teklak ditu.

Tamaina finkoko euskarria ez izateaz gain, oso leku gutxi hartzen du eta erraz eraman daiteke batetik bestera. 39,6 x 13,5 cm neurtzen du eta 2.5 kg besterik ez du pisatzen.

NWP-559: SONY-REN DISKO MAGNETIKO-OPTIKOA

Bolumen handiko datu-multzoak gordetzeko garatua izan da kanpo-memoria hau. Beste euskarriekin konparatuz abantaila ugari eskaintzen du. 130 mm-ko diametroa duen disket batean (5 1/4 hazbetekoa) 594 Mb gorde daitezke; 297 alde bakoitzean.

Atzipen zuzeneko euskarri bat da eta datuak nahi adina aldiz borraratu eta berriidatz daitezke. Beraz, disket, disko gogor eta CD-ROMen abantailak biltzen ditu: alde batetik, datuak berriro idatzi ahal izatea eta bestetik bolumen handiak gordetzeko ahalmena.

Irudien tratamenduan, CAD-CAMen eta irakurketak edota idazketak denbora errealean egitea eskatzen duten eta informazio-bolumen handiak erabiltzen dituzten aplikazio eta lan-estazioentzat dago zuzendua batipat.

Esan bezala, memori ahalmen handia izatea ez da bere abantaila bakarra; disko gogor bat balitz bezala borra daiteke eta informazioa berriro gorde. Material berezi batez egina dago eta horri zor dio ezaugarri hau. Material horrek laser izpi baten bidez 'curie' puntu deritzon punturaino berotzen denean bakarrik aldatzen du bere polarizazio magnetikoa.

Gainerako euskarri magnetikoek baino segurtasun handiagoa eskaintzen du; datuak galtzeko tenperatura normalean egoten ez diren indar handiko eremu magnetikoak jasan beharko bait ditu diskoak.

MAC IIfx: GAUR EGUN AURKI DAITEKEEN MIKRORIK AZKARRENA

Mac II eta Mac IIfx-en itxura bera duen arren, gaur egun aurki daitekeen mikrorik azkarrena da. Motorola 68030 prozesadorea eta 68882 koprosesadore matematikoa ditu eta 40 MHz-etan egiten du lan.

Dena den, azkarra izatearen arrazoia ez da CPUaren erloju-abiadura handiagoa izatea bakarrik. Badira honez gain diseinuan integratu diren beste aurrerapen teknologiko batzuk ere. Aurrerapen hauek hiru arlo desberdinetan sailka daitezke:

Prozesu- eta memori arloa

40 MHz-etan lan egiten duten bi prozesadorez gain, 32 Kb-eko abiadura azkarreko cache memoria bat du. Honi esker prozesadoreak ia itxarote-denborarik gabe egin dezake lan, produktua asko garestituko luketen memoria bereziak erabili beharrik gabe.

Bestalde, "latched-write" teknikak prozesadoreak memorian idatzi eta aldi berean RAM cache memoriatik irakurtzea ahalbidetzen du, prozesua azkarragotuz.

Sarrera/irteera arloa

Macintosh IIfx-ek sarrera/irteerako bi prozesadore berri ditu. Hauek arduratuko dira datu-transferentziak burutzeaz, prozesadore zentralari lan hau deskargatuz.

Erakuspen-arloa

Hirugarren arlo honetan ere plaka berriak aurkeztu dira; hauen artean garrantzitsuen sistema erantzun-abiadura 5 eta 30 bider artean azkarragotu dezakeen 8/24 biteko txar-tela izanik.



Ekipamendu hau, prozesu-ahalmen handia behar dutenentzat diseinaturik dago hain zuzen ere: sare-zerbitzariarentzat eta irudien tratamenduan, animazioan edota lan konplexuen diseinuan diharduen jendearentzat.

Makina berri honen bi bertsio desberdin aurkeztu dira: 4 Mb-eko RAM memoria eta 80 edo 160 Mb-eko diskoa. Bi bertsio hauek ekainerako kalean egotea espero da eta ordenadorearekin batera sistemaren 6.05 bertsioa ere eskainiko da. ● ● ● ●